

**Usurbilgo etorkizuna  
marrazten hasteko garaia da**

**Janari ekologikoa  
zerbitzatuko da Udarregiko  
eraikin berriko jangelan**

**Baxurde Krosserako  
izen-emate epea zabalik**

# noa.ua



**Esperientzia Eskola  
Bizipenak, ezagutzak eta ikasketak  
elkar trukatzeko topagunea**


# WIKEL MADENA

TALDE MURRIZTUAK ETA  
PERSONALIZATUAK

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa • Selektibitatea
- Lanbide heziketa
- Ikasketa teknikoak
- Hizkuntzak

629944690

Galtzaragaña 1, behea USURBIL



MARIJE  
DENBORALDI BERRIA

ETXEBESTE 3, USURBIL

# KAMDEN

hizkuntzak

## English courses

- Talde txikiak
- Gazte eta helduentzako ikastaroak
- Cambridgeko azterketak prestatzeko

**Matrikulazio epea zabalik!!**

**irailaren 4tik 12ra**

**12:00-13:00 eta 18:00-20:00**

**irailaren 15tik aurrera**

**18:00-20:00**

[www.kamdenhizkuntzak.com](http://www.kamdenhizkuntzak.com)

Zubiaurrenea 6 • Tlf 943 371 402



**OGI BERRI**  
ARTISAU OKINAK

ETA ORAIN...

**IKUSI FUTBOL  
PARTIDUAK  
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)

PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

## Albiste iruditan

# Palestinarrekin bat

**P**alestinarek uda honetan jasandako Israelen erasoaldia salatu eta eurei elkartasuna adierazteko mobilizazioak izan dira nonahi. Ondoko irudian duzue, Mikel Laboa plazan burutu zena, joan den uztailaren 18an, "Palestina, elkartasuna. Utzi bakean palestinar herria!" lemapean.

### Su-eten orokorra indarrean jartzea

Uztailaren 29an burutu zen osoko ohiko bilkuran ere eraginik izan zuen palestinarren aurkako erasoaldiak. Azken orduan, gai zerrendan aurreikusia ez zegoen arren, Gazako erasoaldia berehala geratzea eskatzeko mozioa aurkeztu zuen EH Bilkudak. Aho batez onartu zuen udalbatzak.

"Hesi babesgarria" operazio militarra amaitzea, su-eten orokorra indarrean jartzea, Gazako blokeoa altxa, zibilek pairatu beharreko zigor neurriak bukatu, nazioarteko erakundeen esku hartzea eta estatu palestinarra sortzeko negoziaketa sustatzea eskatzen du mozioak.



"Utzi bakean palestinar herria!" dio elkarretaratzean zabaldu zuten pankartak.

## Laburrean

### Katekesi taldeetan izena emateko garaia da

Salbatore Parrokiako katekesi taldeetan izena emateko egunak hauek izango dira: irailaren 16an eta irailaren 17an, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara Parrokiako bulegoetan. "Gurasoak bertaratzea komeniko litzateke", katekesi taldekoek aditzera eman dutenez.

### Datorren astean, 1958koen kinto bazkaria

Irailaren 13an batuko dira Antxeta jatetxean. Izen ematea, irailaren 8ra arte egongo da zabalik. Prezioa, 40 euro.

Ordainketa, ordea aurrez egin behar da Laboral Kutxako kontu zenbaki honetan: 3035 0140 33 1400028867.

### Irailaren 12an, Masusta zaleen biltzarra

Hamairugarren kofradea izendatuko du Masustaren Kofradiak irailaren 12rako 21:00etatik aurrera Txirristra tabernan antolatu duen gaularrian. 2007az geroztik egiten duten moduan, afaritarako bilduko dira bertan. Kantu giroan ospaturiko hitzordua irekia da.

# noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noaqua.com // www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Arantxa Zulaika,

publizitatea@noaqua.com

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**

**erredakzio@noaqua.com:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Ettxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Arna-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udalra



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

## Kulturala edo

Udaberrik hona, ospitale, erresidentzia eta mediku artean gabiltza familian. Antzeko lokatzetan harrapatuta zaudenean, zaila da buruari atsedeen ematea. Baita oporraldian ere.

Baina asko gara, antolatu gara eta sikiera astebete hemendik ospa egiteko aukera izan dugu. Egunerokoak albo batera utzi eta arnas pixka bat hartzeko, besterik ez bada ere. Eta horretarako, ez dago atzerrira joatea baino hobea-gorik. Arrotz zaizun lurraldean ibili, arrotz zaizun hizkuntzan arrotz sentitu.

Berlinen izan naiz astebetez. Turkiarrak eta ikasle jendea nagusi

den auzoan.

Egun gutxiko egonaldietan, bizikleta izan ohi da garraioberdik egokiena. Hiriko txoko ezberdinetara iristeko, hiriko paisaia (gizatiarra zein bestelakoa) ezagutzeko. Duela gutxi egin nuen deskubrimendu hori. Bizikletak alokatu eta batetik bestera ibili, ibili eta ibili. Galdu, berriz ere bidea aurkitu, baina beti aitzina.

Bizikletan dabilenari errespetu handia diote han. Lehentasuna dute, oinezkoek bezalaxe. Kulturala izango da. Hasieran kosta egingo zen. Bizilege urbanoan, autoa oraindik jaun eta jabe baita. Baina Alemaniako hiriburuan lortu dute autoa vs. bizikletaren zioan, piramideari buelta

ematen.

Hangoekin hizketan ordea, bestelako iritzia dute. Alegia, ez dela hain ederra guk hartutako impresioa. Autoetan dabilen jendeak asko duela ikasteko. "Ez zarete gure herrian egon", etorriko zaizu burura baina ez duzu hori esateko indarrak batuko.

Garagardoak ere edan ditugu. Dezente edan ere. Ez gara orain zurikerietan hasiko. Lehen egunetik baina, atentzioa deitu zidan detaile batek. Beira birziklatzeko, baten faltan, hiru edukiontzi dituzte aukeran. Berdea, marroia eta zuria. Alegia, kolorearen arabera ere bereizten dutela beira. Etxean

nahiz kalean.

Munduan garagardo gehien edaten den herrialdeetako izanik, normalizat joko duzue akaso. Baina ez pentsa. Ez dute beirarekin bakarrik egiten. Han, etxeetako barruko patio guztietan dago edukiontzi sorta ederra. Hondakinak atalka sailkatzeko. 6 pisuko etxebizitza blokeetan, nahiz auzo erresidentzialetan. Atalka bereizten ohituta daude (edo akaso, horretan ere bestelako impresioa dute berlingarrek?). Han, Alemaniako hiriburuan, Europar Batasuneko zazpigarren hiririk handienean. Kulturala izango da hori ere. Noizbait hasiko ziren horretan. Duela gutxi, gure lurraldean hasi garen bezalaxe.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Idoia Torregerai | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas

## Liburutegiko txokoa

### Txiki handiak: uda amaierako gomendioak

**FALETTI, Giorgio, "Tres actos y dos partes" (150 or.).**

Futbol"ero"entzat; futboleko giro-tutako eta harreman pertsonaletan oinarritutako eleberria.



**PONIATOWSKA, Elena (Cervantes Saria 2014), "Querido Diego, te abraza Quiela" (90 or.).**

Artezaleentzat; Diego Riveraren lehen emazteak, Angelina Beloff margolariak, Parisetik idatzi zizkion eskutitzak irudikatzen dituzte idazleak.

**SERRA, Michele, "Los cansados" (150 or.).**

Nerabeen gurasoentzat; aita eta seme gaztetxo baten arteko harremana eta elkarbizitzari buruzko kontakizuna.

**JUVENTENY, Raimon, "Ibiltzaile onaren eskuliburua: deskribape-**

**na hogeie urratsetan" (44 or.).**

Ibiltarietaz; ibiltzeaz, naturaz...finen, bizitzaz, patxadan gozatzeari buruzko albuma.

**"Izenik gabe, 200 x 133" (83 min)**

Monika Zumeta eta Enara Goikoetxeak zuzendutako ikusentzunezkoa. Usurbildarrentzat. Jose Luis Zumeta margolariaren sortze-prozesuari buruzko dokumentala.



**"Vivir es fácil con los ojos cerrados" (108 min.), David Truebaren** filma. Guztiontzat. 60. hamarkadan,

The Beatlesen abestiekin ingelesez erakusten duen irakasle batek eta ihesi doazen bi gaztek bidaia bati (barne bidaia ere izango dena) ekingo diote.

**Liburutegia non?: Irazu 14**

Bloga: <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/>

Twitter: @usurbib

Facebook:

Usurbilgo Sutegi Udala Liburutegia

Noaia! Komunitatea:

Sutegi Udala Liburutegia

App: Liburutegiak



# Irailaren 9tik aurrera, herriaren geroa margotzera



Hiria Antolatzeko Plan Orokorra eguneratzeko, partehartze prozesua abiaraziko du Udalak.

U surbil etorkizuna eraikitzen has- teko zorian da. Irailaren 9an, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Sutegin deituriko aurkezpen bilerarekin abiatuko da, Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO) eguneratzeko, Usurbilgo Udalak herritarrei zuzenduta antolatu duen parte hartze prozesu berria. “Orain, denon artean etorkizunean nolako herria nahi dugun erabakiko dugu. Orain marraztuko dugu Usurbilgo geroa. Inoiz baino gehiago Usurbilen, oraina da geroa”, dio Udalak, hastear den bilera sortaren garrantzia nabarmenduz, etxez etxe banatu duen eskuorrian.

Prozesu honetan zehar hartutako erabakiek, biharko herriaren eta herritarren bizimoduan eragingo dute, zuzen zuzenean. Horregatik, Udaletik azpimarratzen dutenez, “asko duzu esateko. Usurbilen bizi garenok ezagutzen dugu herria ondoen, badakigu zeintzuk diren ahuleziak eta indarguneak. Zure ikuspuntutik abiatuta etorkizuneko Usurbil marrazteko ariketa egitera gonbidatu nahi zaitugu”.

## EGUTEGIA

Hilabete iraungo du parte hartze prozesuak; irailaren 9an hasiko da aipatu aurkezpen bilerarekin eta urriaren 9an amaituko da. 17 saio guztira. Egungo Usurbilgo errealitatea aztertu, etorkizuneko erronkak aurreikusi eta usurbildarrek

nolako herria nahi duten irudikatzeko aukera izango dute hitzordu guztiotan. Bilerak auzoka eta eremuka egingo dira. Guztiak arratsaldeko 19:00etatik aurrera, (urriaren 4ko bilera izan ezik, goizeko 10:00etan izango baita):

### Irailak 9, asteartea:

Aurkezpen bilera Sutegin.

Irailak 15/29: Aginagako ludotekan.

Irailak 16/urriak 4: Herriguneko bilerak, Potxoenean euskaraz.

Irailak 17/urriak 1: herriguneko bilerak Artzabalen (erdaraz).

Irailak 18/urriak 2: Zubietako Kaxkapen.

Irailak 22/urriak 6: Mugikortasuna eta ingurumen gaiak jorrazteko bilerak Potxoenean.

Irailak 23/urriak 7: Jarduera ekonomikoak, komertzioa eta nekazaritza gaiak jorrazteko bilerak Potxoenean.

Irailak 24/urriak 8: Ekipamenduak, zerbitzuak eta azpiegitura gaiak jorrazteko bilerak Potxoenean.

Irailak 25/urriak 9: Lurralde antolaketa hizpide dituzten bilerak Potxoenean.

## Operario laguntzaile lanpostua betetzeko deialdia

Lan deialdia: operario laguntzaile lanpostua bitarteko funtzionarioaz hornitzeko oposizio deialdia. Lanaldi osoa eskaintzen da.

Egin beharreko lanak: kale garbiketako lanak, igeltseritza lanetan lagundu, lorezaintza lanak, iturgin eta elektrikariari lagundu, hilerrietako mantentze, ehorzketa eta lorezaintza lanak, instalazio lanak...

### Eskaide aurkezpena:

Irailaren 17ra arte, udaletxean.

### Beharrezko titulazioa:

Eskola-ziurtagiria edota B motako gida-baimena.

### Informazio gehiago:

Abuztuaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, usurbil.net, edo udaletxean (943 371 951).

Deitzailea: Usurbilgo Udalak.

## 6 eta 16 urte arteko ikasleen iritzia hartuko da kontuan

Bilera guztioz gain, 6-16 urte arteko ikasleen ikuspegia jasotzeko ere lau lan saio burutuko dira. Hau guztia irailaren 9tik urriaren 9ra. Baina parte hartze prozesua ez da hor amaituko. “Behin bilera horiek guztiak burututakoan, Udalak guztion artean osatutako Usurbilgo marrazkia aurkeztuko du. Horretarako, beste lan saio batzuetarako deialdia luzatuko du urtarriean”, ohartarazi dutenez. Gai honi buruzko informazio gehiago, Udalak martxan jarriko duen usurbilorainadageroa.com atarian jaso dezakezue.

## Hondakinak kudeatzeko udal ordenantza, eraberritua

Hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen udal ordenantza eraberritua du Usurbilgo Udalak, uztailearen 29an burutu zen osoko ohiko bilkuran, udalbatzak EH Bilduren babesarekin gehiengo osoz behin betiko onartu ostean. Aurka agertu ziren Hamaikabat eta PSE-EE. EAJ-PNV abstenitu zen. Euskara lehenetsi, arau hausteen atala egokitu eta atez ateko bilketatik kanpo dauden hondakinen bilketetan hainbat hobekuntza jasotzen ditu araudi eraberrituak.

# Bertako eta garaiko jakiak,

Janari ekologikoa zerbitzatuko dute Ikastolako eraikin berriko jangelan

**D**atorren astelehenean, irailaren 8an abiatuko duten 2014-15 ikasturtea, aldaketa urtea izango da Udarregi Ikastolakoentzat. Agerialde ondoan kokaturiko eraikin berria irekiko dutenez, ikastolak duen espazio osoa berrantolatu dute, eta ikasle talde bat baino gehiago, eraikinez aldatuko da. Eraikin berriaren irekierak ordea, badakar beste aldaketa nagusi bat; bertan kokatuko baita, handiagoa, erosoagoa izango den jangela. Janari ekologikoa zerbitzatuko dute gainera, orain arte Haur Eskolan egiten zuten moduan. Aurrerantzean, Udarregiko ziklo guztietan, 0-16 urte artean beraz, egunero, produktu ekologikoak, bertakoak eta garaikoak dastatu ahalko dituzte ikasleek jangelan. Zehaztasun gehiago biltzeko, aldaketa guztiok kudeatzen aritu den Jangela Batzordeko ordezkariekin bildu gara.



Jangelako langile, guraso eta ikastolako ordezkariak osatua dago Jangela Batzordea.

## Zein izan da zuen egitekoa urteotan?

**Jangela Batzordea:** Ikastolan beti funtzionatu izan dugu catering bidez, Haur Eskolan aldiz janari ekologikoarekin. Ikusten genuena zen, Haur Eskolako ikasleak ikastolara pasatzen zirenean faltan botatzen zutela modu berdineko antolaketa, janari mota... Zerbait egin beharrean aurkitu ginen. Orduan hasi ginen ikusten, beharrezkoa izango zela Jangela Batzorde bat antolatzeko. Horrela, beste sakontasun batekin heldu genion gai honi.

## Haur Eskolako proiektua zena, irailaren 8tik ikastolako ziklo guztietara hedatu nahi duzue?

Jarraipen bat emateko, izan dadila 0-16 urte artean eskaintza bera. Haur Eskolatik HH-ra igarotzean, aldaketa handia sentitzen da umeengan. Bertan sukaldatutako bazkari bat hartzetik, catering batera pasatzea, aldaketa handia bezala sentitzen da. Hortik hasi ginen gurasoak mugitzen, ikastolako egituraren laguntzarekin eta baliabideekin, 2008-09 ikasturtean. Jangela beste era batera antolatzeko. Zuzendaritza

## JANGELA BATZORDEA

**“Kontrolatutako ingurunekeo jakiak izango dira. Ekologikoak, bertakoak eta garaikoak. Une honetan bertako sei hornitzaile ditugu”.**

taldeak bost urteroko egiten duen plan estrategikoaren baitan zuen jangela zerbitzua berritzatzea eta bertan sukaldatzea. Orduan, bertan bazkaltzeko proiektua aurrera eraman dugu. Lehenengo arazoarekin topo egin genuen berehala, instalakuntza arazoekin. Ikastola handitzen ari zen, Agerialdeko eraikinean Lanbide Hastapeneko sukaldaritzakoak zeuden. Ez zegoen lekurik. Bi txandatan zerbitzatu behar izaten zen bazkaria; aurrea ikasle gazteenei, gero helduenei. Lanbide Hastapenekoak Atallura joan zirenean, jangela handitu zen eta denak sartzen ginen txanda batean.

## Eraikin berriarekin zertan hobetuko da jangela zerbitzua?

Bertan sukaldatutako janaria izango da 0-16 urte artekoentzat, ho-

rrekin kalitatea ikaragarri hobetzen da. Janari ekologikoa, bertakoa eta garaikoa izango da. Kontrolatutako ingurunekeo jakiak izango dira; produktuak nongoak eta nolakoak diren ezagutuko ditugu. Bertako ekoizpenari, ekonomia suspertzeari garrantzia eman dio bai Jangela Batzordeak eta ikastolak. Ahal den neurrian behintzat, herrian egiten den horri irteera bat ematea, herrian bertan ekoiztu eta kontsumitzea. Une honetan badira bertako sei bat hornitzaile. Horrek ere ekarriko du onura.

## Heziketa lan bat ere sustatu nahi duzue jangelatik?

Bazkalordua hezkuntza unea da. Arauak daude. Barruti arautua da, ikastolaren kargu daude ikasleak bi ordu horietan. Aldaketa nagusia, janariaren kalitatea hobetuko dela. Hezkuntzan eta hazkuntzan oso garrantzitsua den gauza bat da haurerentzat. Jaten duguna gara. Zentzu horretan ikusten dugu, oso ona eta garrantzitsua izango dela ikastolarentzat. Horrela ulertu du ikastolak egin duen ahaleginarekin eta baita udalak ere, egin den eraikinarekin. Hori instalakuntzetan ikusten da.

180 gradutako aldaketa emango da. Inor joan bada jangela zaharrera, ezin zen hitz egin ere egin, ez zegoelako horretarako prestatua. Gogoratu behar dugu eguerdian ikastolan gelditzen diren haurren kokapena, jangela dela bi ordu horietan. Eta ardura jangelarena dela. Lekua ere goxoa izatea, hitz egin, etxeko lanak egin ahal izatea, edo umeak bertan jolastea, horretarako txoko bat prestatzea oso garrantzitsua da. Megafonia egongo da. Oso garrantzitsua izango da ere hezkuntzarako. Bilera asko izan dira, asko hitz egin eta eztabaidatu da. Adin batetik aurrera umeek bazkaria eurek zerbitzatu ahalko dute.

## “AUKERA EZBERDINAK DAUDE” Jangelako erabiltzaile berriek zer egin behar dute izen emateko?

Ikastolako idazkaritzara deitu dezatela, bertan ematen da informazioa, ze kuota mota dauden... Egun batetik besterako tramite bat da. Izen ematea irekia dago. Badira egunero datozen ikasleak, baina bezperan deituz egun zehatz batzuetan ere etor daitezke. Aukera ezberdinak daude, bakoitzak hautatzen du berrari hobeto datorkion aukera.

# mahai gainean

## Elikadura ekologikoa. Zer da jakin behar duguna?

Garaian garaiko janaria ematen zaie. Oinarria barazkiak eta gluten gabeko zerealak dira, zeliakoek ere jan ditzakete. Janari gorria gutxiago ematen da, haragi zuri gehiago; oilaskoa kasu honetan. Egongo dira baita menuan aldaketak. Ohituta gaude beti lehenbiziko plateraren ostean, bigarren plateran animalia proteinak jatera. Baina ez du zertan animaliena izan beharrik. Izan liteke, proteina begetal bat; lehenbizi barazki pure bat eta ondoren lenteja batzuk adibidez, zerealen batekin nahastuta. Oso orekatua da. Halako aldaketak emango dira, badakigu hasieran purrustak entzungo direla, batez ere ikasle helduenetan. Baina pixkanaka ohituko dira. Elikadura osasungarriagoa izango da eta askoz hobeto ibiliko dira.

Menuak osatzen direnean pediatriarengana jotzen dugu, bera ere jakinaren gainean dago ze menu mota ematen den. Gaur egun, obesitate kasu asko ematen ari dira umeen artean, jaten den moduarengatik. Janari kopuruak ere, neurtuta daude. Dena aztertuta dago, eta dena kontrastatua dago pediatriarekin eta catering-eko adituekin. Hilabete osorako menua begiraturata, orekatua da.

**Haur Eskolako esperientziaren kasuan, bertatik etxetara hedatu da elikadura ekologikoaren**



Jangela Batzordeko kideak, jangela berria kokatuko den gunean.

### aldeko apustua?

Egin dira sentsibilizazio hitzaldiak, sukaldaritza ikastaroak antolatuta dira. Gurasoak animatu izan dira. Interes handia dute, pixka bat konpentsatzeko haurrek zer jaten duten eguerdian, gero iluntzean etxean jateko.

### Gai honetan ere hezi beharra badugu?

Helduok ikasi behar dugu, arazoa helduok dugu. Haur Eskolan, taldearen arabera aldaketa asko eman izan ditut. Ikusten da zer onartzen duten eta zer ez. Beraiek onartzen

duten bide horretatik jarraitzen saiatzen gara. Baina arazoa helduok dugu, era batera ohitu baikara jatera.

Orain bat batean aldaketa hau ematea, haragia edo arraina jaten ez badugu, uste da ez dela dieta orekatua. Baina bai. Aldaketa hori eman behar da, baina pixkanaka, poliki-poliki eta ahal den neurrian. Formazio eta sentsibilizazioarekin jarraituko dugu. 0-16 urte arteko ikasleen gurasoak, Jangela Batzordean parte hartzerantz animatzen ditugu.

### HAUR ESKOLAN, ORAIN ARTE BEZALA

Eraikin berriko jangela irekitzearekin emango den aldaketa, 3-16 urte arteko ikasleek nabaritu dute. Haur Eskolakoek ez. Orain arteko menua dastatu ahalko dute astelehenetik ostiralera, Kalezarren biltzen diren haur txikiek. Sukaldariak eraikin berriaren prestatuko du bazkaria, baina Jangela Batzordetik ohartarazi nahi izan dutenez, "lasai egon daitezela Haur Eskolako gurasoak. Eraikin berriaren sukaldatutakoa Haur Eskolara garraiatuko da. Berdin jaten jarraituko dute".

## Goxoa, handia eta modernoa

Jangela goxoa, handia eta modernoa, hitz gutxitan orain artekoak baino instalakuntza hobeak izango ditu irailaren 8tik aurrera, Udarregi Ikastolak. Astelehenetik ostiralera 12:30etatik 14:30etara, bi orduz eskainiko duten jangela zerbitzuaren baitan, bazkaldu egingo dute ikasleek. Baina klasera itzuli aurretik, bes-

te ordubete izango dute ikasleek etxeko lanak egin, jolastu edo lasai egoteko. Horretarako gune egokitua izango dute jangelan. Sor litezkeen beharrei aurre egiteko, ikastolak deituriko bilerak egiteko ere baliu ditzakete azpiegitura berriok. Erabilera anitzeko gunea izango da beraz. Orain frontoi ingurua estaltzea falta zaiela diote.

Bazkalostean, klasera itzuli aurrereko ordubete horretan, haurrek jolasteko nahiko leku izan dezaten eskola atarian, egun osoa eraikin barruan sartuta eman beharrean.

### IKASTURTE HASIERA

Egunotan itzuliko dira ikasleak Udarregi ikastolara:

**Irailak 4, osteguna:** 8:00-13:00

artean, Haur Eskolakoak.

**Irailak 5, ostirala:** 10:00-12:30 artean, DBH-koak.

**Irailak 8, astelehena:** 9:00-12:30 artean, HH eta LH-koak. Jangela zerbitzua abiatzea.

**Informazio gehiago:** udarregi.com atarian, Udarregi Ikastolako idazkaritzan edo 943 36 12 16 telefono zenbakian.

# Mugarri berria, elkarbizitza eta aniztasunaren alde

**M**igrazioa eta aniztasunaren alde azken hilabete hauetan, Udalarekin batera lanean dabiltzan herritar eta eragileek, zenbait ekintza antolatu dituzte irailaren 11tik 13ra. Hasteko, zurrumurruei aurre egiteko alternatibaren inguruko hitzaldia eta erakusketa, SOS Arrazakeria taldekoen laguntzaz.

Jatorri ezberdinetako herritarrek egon ohi diren "zurrumurruek eta aurreiritziak baztertzailak diren heinean, herritarren arteko bizikidetzaz oztopatzen eta kutsatzen dute. Zurrumurruei aurre egitea ezinbestekoa da elkarbizitza osasungarri bat eraiki ahal izateko. Horretarako badira hainbat estrategia eta alternatiba. Hitzaldira hurbiltzen diren herritarrek, hauek ezagutzeko eta gaiaren inguruan sakontzeko aukera izango dute", antolatzailak aurreratu dutenez.

## Aniztasunaren alde

Hitzorduo gain, "Usurbil, herri anitza!" jaialdia deitu dute irailaren 13an. Jatorri ezberdinetako herritarren topagune izan nahi duen elkartasun ekimen honen bidez, hartu emanak indartu nahi dira eta "herritarren jatorri aniztasunaren balioa aintzat hartzeko urra-



Irailaren 13an, "Usurbil, Herri anitza!" jaian, La Jodedera taldea arituko da.

tsak ematen jarraitzea".

Herri anitza baitugu Usurbil. Udalak 2013an bildutako datuen arabera, herritarren %43,1 herrian bertan jaiotakoa da; %37,2 Gipuzkoako beste txokoetan sorturikoa; %2,8 Euskal Herriko beste txoketatik etorria eta %16,8 Euskal Herritik kanpo jaiotakoa.

%16,8 Euskal Herritik kanpo jaiotakoa aipatu moduan. Hortik, %77,1 Europan, %18,2 Ameriketara, %2,6 Afrikara eta %2,1 Asiatara.

## Irailak 11-13

Erakusketa Sutegin: SOS Arrazakeria taldekoen "Zurrumurruek deseraikitzen".

## Irailak 11, osteguna

19:00 Hitzaldia Potxoenean: "Zurrumurruen aurrean alter-

natibak ehuntzen".

Hizlaria: Agustin Unzurrunzaga, SOS Arrazakeria.

## Irailak 13, larunbata

"Usurbil, herri anitza!" jaia 17:00 Ongi-etorria, aurkezpena.

17:30-20:00 Herrialde desberdinetako jaki-dastaketa.

18:00 "Babutxa madarikatua" ipuin antzeztua, Kolore Biziak-eko Baraka Taldea eta Idoia Sanchezen eskutik.

18:45 Buruhandiak.

19:00 Aniztasunarekin dantzari: euskal dantzak eta dantza afrikarrak. Usurbilgo Dantza Taldearen eta hainbat herritarren parte hartzearekin. 20:00 Kontzertua: La Jodedera.

Antolatzaileak: Aniztasunaren aldeko herritarren lantaldea eta Usurbilgo Udala.

## Einean Guraso Eskola

Irailaren 15era arte zabalik dago ikastaroetan izen emateko epea.

**Laboreak.** Astean behin, 2 ordu. Iraupena: urria-ekaina. Irakaslea: Juani 609 41 38 83.

**Yoga.** Astean behin, 1,5 ordu. Iraupena: urria-ekaina.

Irakaslea: Sebas 605722825.

**Pintura.** Astean behin, 2 ordu. Iraupena: urria-ekaina.

Irakaslea: Susana 609413883.

**Eskulanak.** Astean behin, 2 ordu. Iraupena: urria-ekaina.

Irakaslea: Susana 609413883.

**Sabel dantza/ Hip Hop.** Astean behin, 1,5 ordu. Iraupena: urria-ekaina. Irakaslea: Uarda 637256851.

## Ikastolako Guraso Elkarte

Gurasoen formazioa sustatu asmoz, Nerea Mendizabalen tailer batzuk iragarri ditu. HH eta LH 1-4eko umeen gurasoei zuzenduta daude. LH5-6 eta DBHko gurasoentzat beste tailer mota bat antolatzen ari dira. Izen emateko epea irailaren 19an zabalduko da. hitzaho@udarregi.com edota Udarregi ikastolan.

## Irailaren 9an hasiko dira klaseak Zumarten

Ikasleentzat, Zumarteko ikasturte hasiera irailaren 9an asteartea izango da. Egun horretan klase guztiak hasiko dira: instrumentuetakoak, taldeetakoak, musika mintzairakoak, abesbatzakoak... Talde denak, alegia.

## Hondakin kudeaketari buruzko ikastaroa

Edukiak: hiri eta industria hondakinak bildu eta tratatzea; lanpostuan lanean arrikuak prebenitzeko neurriak hartzea. Iraupena: irailaren 9tik azaroaren 21era. Atallun, astelehenera ostiralera, 8:30-14:00 artean. Informazio gehiago: udaletxera deituta (943 371 951, Josune Mujika).

# AEBean gatibu dituzten hiru kubatar aske uzteko eskaera

1998an atzeman eta ordutik AEB-tan espetxeratuak dituzten Gerardo Hernandez Nordelo, Ramon Labañino Salazar eta Antonio Guerrero Rodriguez kubatarrek aske uztea eskatzen duen mozioa aurkeztu

zuen EH Bilduk eta gehiengo osoz onartu zuen udalbatzak, uztailearen 29an burutu zen osoko ohiko bilkuran. PSE-EE, EAJ-PNV eta Hamaikabat taldeetako ordezkariak abstenitu ziren.

Atxiloketak arbitrariotzat jo zituen NBEak, 2005ean. Milioika lagun mobilizatu dira munduan, herritarrok aske uzteko eskatzeko. Orain, Usurbilgo Udala batu zaie ahots horiei, mozio honen bidez.



# Antzerkizaleen Topa Eszenika, begibistan

Irailaren 10etik 13ra, antzerki sortzaileen mahai inguru eta Euskal Herriko aktore ezagunak bilduko dituen antzezlanean. Antzerki Ekin-tzak, Usurbilgo Udalaren eta EHAZEren laguntzaz egitarau hau osatu du:

## Irailak 10 asteazkena

18:30 "Antzerki sortzaileak" mahai ingurua Potxoenean. Topa Eszenikan parte hartuko duten antzezlanean sortzaileekin, antzezlanean prozesua azaldu eta partekatzeko. Ekin-tza irekia izango da.

Parte hartzaileak: Alex Gerediaga (Khea Ziater), Ion Martinez (Aldatzen Laguntzen), Agurtzane Intxaurrea (Hika) eta Asier Zinkunegi (Dar-dar) izango dira. EHAZEko koordi-



Hika Teatroa taldekoek "Hitzak" ikuskizuna eskainiko dute irailaren 12an.

natzaile Itziar Eliasek gidatuko du saioa.

20:30 "Satisfaktion" (Khea Ziater) antzezlana Sutegin:

Iraupena: 55 minutu.

Sarrerak: 3 euro (egunean bertan).

## Irailak 11, osteguna

20:30 "Amets zirkoa salgai (Aldatzen-Laguntzen)" antzezlana Sutegin. Komedia izango da nagusi, baina gutxinaka drama kutsua hartuko du.

3 euro (egunean bertan).

## Irailak 12, ostirala

22:00 "Hitzak (Hika Teatroa)" antzezlana Sutegin:

Aktoreak: Klara Badiola, Ainhoa Aierbe, Ane Pikaza, Jabi Barandi eta Agurtzane Intxaurrea. Sarrerak: 6 euro (egunean bertan).

## Irailak 13, larunbata

22:00 "Etzi (Dar-Dar produkzioak)" antzezlana, Sutegin. Aktoreak: Jose Ramon Soroiz, Pilar Rodriguez, Asier Oruesagasti, Gorka Zufiaurre eta Asier Zinkunegi.

Sarrerak: 6 euro (egunean bertan).

Antolatzailea: Antzerki Ekin-tza.

Laguntzaileak: Usurbilgo Uda-la eta EHAZE.

Lehenengo 6 erosi-entzako, garaje bikoitza banakako prezioan!

# ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

## 188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
Agerreazpi<sub>n</sub>

**VIVIENDAS LANIN S.L.**  
Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia

E: [contacto@viviendaslanin.com](mailto:contacto@viviendaslanin.com)

**943 46 88 60**

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)

**USURBILEN**

# Atxegalde, jaietan bizirik

Saso betean abiatu du Atxegaldek ikasturte berria. Oporretatik bueltan etorri eta lanean edo ikasten hasi aurreko asteburuan jai giroan murgildu nahi izan duten auzotar eta herritarrekin. Musika, txapelketak, jolasak, jan edana, eta batez ere giro eder askoa egon da, urtean asteburu batez, Atxegalde eta Atxegaldeko plaza berpizten duen Jai Batzordeak eginiko lan bikainari esker.

Jon Uriberi txupinazo ekitaldian eginiko omenaldia, "Ekipo A"koak hamaiketakoak zerbitzatzen, Josune Aranbururen itzulera ibizar ukituko afari musikatura, inoizko herri bazkari jendetsuena, partaide trebe askoak toka zein patata



Ehunetik gora lagunek parte hartu zuten haur jokoetan.

tortilla txapelketetan edo body combat saioa... lerroburu ugari utzi dizkigute festek. Irudiotan

besteak beste. Gogoan izan; Atxegaldekoak amaitu arren, festa giroa agurtzeko Agina-

gako San Praixkuak geratzen zaizkigu. Aurretik, Santueneko jaiak; irailaren 19tik 21era.



"Ekipo A"koak ere festetan izan ziren, hamaiketakoak zerbitzatzen.



Haur nahiz helduak aritu dira toka txapelketan. Irudiko laukotea saritu zuten.



Festetako ajearen aurkako botika aurkitu du Jai Batzordeak; body combat saioak.



Josune Aranburu itzuli da Atxegaldeko jaietara, aurren ibizar kutsua izan duen afari musikatura.

# Uda honetan amaituko dituzte Atalluko herri bideko lanak

**L**aster amaitu dituzte lanak. Hormigoiez egokitu dute aipatu herri bidea, Ingemar paretik Atalluko eremua amaitu arte. 150.303,53 euroko aurrekontua zuten lanek. Gastuaren %87a bere gain hartuko du Ur Konfederazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Usurbilgo Udalak, gainerako %13a.

Lehendik bide horren bueltan egindako obren ondorioz, Zumarte, Santuene eta Atallu inguruetan ur zikinak Loiolako araztegi bideratzeko egin beharreko lanen eraginez, egoera txarrean zegoen orain konponetzen aritu diren herri bide hau.



Ur Konfederazioarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kontsultatu ondoren, bidea hormigoiez osatzea erabaki da.

## Hormigoiez osatua

Udaletik berri eman dutenez, "Atalluko erriberan bertako sa-

rea osatu zenetik, erriberako bidearen egoerak txarrera egin eta mantenu beharra areagotu egin zen. Herri bide hau ego-

ki mantentze aldera eta ikusirik etorkizunean Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planean jasota dagoela,

Udalak, Ur Konfederazioarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bidea hormigoiez osatzea adostu zuen".

## Arsuagaenea, herritarren esku



Uztailaren erdialdean zabaldu zen parkea. Oraindik badu zer hobetua.

Uztailaren 17an inauguratu zuten Usurbil eta Lasarte-Oriako udal eta foru ordezkariak, Usurbilgo arnagune berria dugun parkea. 60-80 urteko basoa, landaredi aberatsa, egoteko

nahiz paseatzeko ibilbide aproposekin... Hori eta gehiago eskaintzen du orain arte itxita, eta aurrerantzean herritar orontzat zabalik izango den Arsuagaenea.

## Frontoiak, teilatu berria



Frontoiaren berritze lanak oraindik luzatuko dira hainbat egunez.

Ikusiko zenuten honez gero. Teilatu-hegala konpontzen dabilta. "Egoera kaxkarrean zegoen, batez ere azken haizetearekin hegal batek hegan egin ondoren", berri eman dute Uda-

letik. Lanen kostua, 105.688,05 eurokoa da. Hilabete honetan bertan, atzerapenik ez bada, iraila erdialderako edo, teilatu-hegala eraberritua izatea espero du Udalak.

# Usurbilgo Esperientzia Eskola

PARTE-HARTZAILEA, GARAPEN PERTSONALA SUSTATZEA DU HELBURU NAGUSI



55 urtetik gorako herritarrei dago zuzendua. Argazkia: Esperientzia Eskola.

**U**surbilgo Esperientzia Eskola ere laster jarriko da martxan. 55 urtetik gorako herritarrei zuzendua dago eta batez ere lan mundua utzi dutenak dira Eskola honetara animatzen direnak. Garapen pertsonala sustatzea du helburu, maila fisikoan, psikiakoan eta sozialean. Bide bertatik, taldeak herri-mailan eta gizartean eragiteko duen ahalmena ere hartzen da kontuan.

“Formazio eredu hau hausnarketan oinarritzen den prozesu aktibo eta parte-hartzailea da”. Hala adierazi digute Esperientzia Eskolako sustatzaileek. Ez da bilgune soil bat. Irakasleen arreta profesio-

**ESKOLAREN HELBURUA**  
**“Erretiroa hartzen den unetik, egoera onean mantendu eta norberaren gaitasunak garatzea du helburu”**

nalak gidatzen du Esperientzia Eskolaren martxa.

**NORBANAKOEI EDO TALDEEI ZUZENDUA**

Matia Fundazioak 1998an heldu zion Esperientzia Eskolaren egitasmoari. “Behin erretiroa hartzen den unetik, pertsona helduak egoera onean mantentzea eta norberaren gaitasunak garatzea helburutzat duen ekimena da, hain zuzen

ere”, Esperientzia Eskolako sustatzaileek aditzera eman digutenez. Horren harira, 1999an ikerketa soziologiko bat eskatu zitzaion Javier Elzo irakasleari. Ikerketa hori Gipuzkoako 55-75 urte bitarteko 1.007 pertsona helduen artean egin zen, eta euren lehentasunak, joerak eta zaletasunak aztertu ziren, besteak-beste. Ikerketa horretatik eratorritako emaitzekin abiatu zen gaur egun Esperientzia Eskola gisa ezaguna den topagunea.

Bizi-kalitatearen hobetzea eta parte-hartzea bultzatzea lirateke “oso kontuan izan beharreko bi hitz”, Esperientzia Eskolakoek azpimarratu digutenez.

## Irailean hasi eta ekainera bitartean

Ikasturtea irailean hasi eta ekainean amaituko da. Asteazken zehar bi orduko saio solteak antolatzen dira.

## Gai zerrenda, zabala

Gai-zerrenda oso zabala izan ohi da: erlaxazioa, komunikazioa, informatika, musika, literatura, landare-zaintza eta abar luze bat. Hau guztia modu ireki eta parte-hartzailean burutzen da, eta partaideek ez dute inolaz ere aurretiazko esperientzia edo ezagutzarik erakutsi behar. “Zentzu honetan, taldeak berak ezartzen du edukiak lantzeko intentsitatea eta abiadura”, Esperientzia Eskolako kideek aditzera eman digutenez.

## Izen-ematea astelehenean amaituko da

Usurbilgo Gizarte Zerbitzuetan eman behar da izena, irailaren 10a baino lehen. Telefono zenbakia: 943377110.



Irteerak ere egiten dituzte ikasturtean zehar.

**ESKAIOLA eta PLADUR**  
 Joxean Elorza  
**699426042**  
 USURBIL

  
**ARRANDEGIA PELLO**  
 PUNTAPAX 7  
 943 36 21 64  
 USURBIL

**Josue**  
 Igeltseritza  
 606 37 21 05  
 Atallu pol.28 USURBIL

**BORDATXO**  
 taberna  
**Pintxo Bereziak**  
 943 37 10 42  
 Zubiaurrenea 5

# “Kaleak eskertuko du”, euskara ikasten baduzu

**H**alaxe diote Etumeta AEK euskaltegikoek. Eta hori da aurten-go ikasturteko matrikulazio kanpainarako hautatu duten lema nagusia.

## Euskalduntze ikastaroak

Goizez, 9:00etatik 11:30ak ingurura arte eta arratsaldez, 14:30etatik aurrera bi orduz.

## Autoikaskuntza

Klaseetara joan ezin dutenentzat. Ikasle bakoitzaren beharrei egokituriko ikasketa plana eta astero bi orduko mintza saioa eta ordu erdiko tutoretza.

## Mintzalagun

Euskara ikasten ari direnei edota dakitenei zuzendua. Lagun artean, astero euskaraz mintzatzeko aukera.



Etumeta euskaltegian topatuko duzue informazio gehiago.

## Izen-ematea

Astelehenetik ostiralera: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

## Informazio gehiago:

Kale Nagusia, 43 Usurbil

Telefono zenbakia:

607 609 379.

usurbil@aek.org

www.aek.org

muntteri.blogspot.com.es

# Dolua ardatz, ahalduntze ikastaroan

**K**risi eta doluen aurrean ahalduntzea izeneko ikastaroa antolatu du Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak. Tailerra irailaren 25ean hasi eta abenduaren 18ra arteko izango da.

Saioak, ostegun arratsaldeko, 17:30etatik 19:30etara Bake Epaitegi atzealdeko lokalean, Pepa Bojo psikologoaren eskutik. Doan eman daiteke izena

irailaren 22ra arte, Udaleko Parekidetasun Sailean; 943 377 110 telefono zenbakira deituta edo parekidetasuna@usurbil.net helbidera mezu bat idatzi-ta.

“Krisiak aldaketa esan nahi du, berregituraketa. Zenbaite-tan krisiak existentzialak dira eta beste batzuk, bat bateko aldaketek eta/edo galerek eragindakoak. Nolanahi ere, krisi eta/edo dolu prozesuetan

norberaren burua hobeto eza-gutzeko, baliabide pertsona-lak garatzeko eta geure burua ahalduntzeko aukera daukagu. Tailer honetan, adin desberdi-netako emakumeok izan ohi ditugun krisi ohikoenak azter-tu eta hauek nola kudeatzen ditugun hausnartuz, norberaren burua ahalduntzeko eta sendotzeko tresnak eta baliabi-deak eskainiko dira”, iragarri dute ikastaroko antolatzaileek.

## Yoga, Santuenean

“Berreskuratu zure harmo-nia eta hobetu zure osasuna”. Horixe Santuenea Elkarteak egin duen gonbidapena, yoga ikastaro berriak iragartzeare-kin batera. Herritarren eskariei erantzunez, goizetan yoga tal-dea osatzeko aukera egongo da. Irailaren 16an hasiko dute ikasturte berria.

## Yoga

Noiz: astearte eta ostegunetan.

Orduetgiak:

9:15-10:45 eta 16:00-17:30:

Juanjo Lertxundi irakaslearekin (637 413 691).

20:30-22:00: Abelina Manso irakaslearekin (619 791 170).

## Yoga eta zorientasuna lantzen

Noiz: asteartetan.

Orduetgia: 18:30-20:00.

Irakaslea: Juanjo Lertxundi.

## Muxurbil antzerki tailerra

Izen berri eta goxo hau estrei-natuz abiatuko dute antzerki tailerrekoek ikasturte berria. Adin guztietako herritar oro animatzen dute parte hartzera. Larunbat honetan, irailaren 6an, goizeko 10:00etatik 13:00etara bake epaitegi ondoko lokalera gerturatu eta bertan eman de-zakezue izena, baita informazio gehiago jaso ere. Argibideeta-rako, telefono zenbaki hau ere eskuragarri duzue: 675 71 23 83 (Ixabel Agirresarobe). Hodei Untzuetarekin batera gidatuko du usurbildarrak, antzerki taile-rreko denboraldi berria.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. © 943 362 725

**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi@euskalnet.net

**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

**ETXETRESNEN KONPONKETAK**

Moduz, azkar eta prezio onean  
MARKA GUZTIAK

645417665  
XABIER  
Usurbil

# Taldeen desfilearekin abiatuko dute Usurbil Cup Txapelketa



Taldeen desfilea arratsaldeko 18:00etan hasiko da, ostiral honetan, Askatasuna plazan.

**E**kainean ez irailen ospatuko da aurten Usurbil Cup txapelketa. Asteburu honetan bertan abiatuko da. Lehen jardunaldiari dagozkion partidak, larunbatean jokatuko dira. Aurrez ordea, ostiralean, kartel pintaketa, taldeen desfilea eta guraso bilera deitu ditu Usurbil FT-k. Hona

hemen hitzorduon zehaztasun gehiago:

## Irailak 5, ostirala

17:30 Talde guztiak arduradunekin Askatasuna plazan bilduko dira, kartel pintaketa burutzeko.

18:00 Taldeen desfilea Mikel Laboa plazaraino.

19:30 Arduradun zein guraso ororentzat bilera irekia Potxoenean. Datak, arautegia eta jarraibideak azalduko dira.

## Irailak 6, larunbata

Usurbil Cup Txapelketako lehen jardunaldia.

Antolatzailea: Usurbil FT.

# Auzolanerako deia egin dute Zubietako Eskola Txikian

**Z**ubietako Eskola Txikian laster hasiko dira handitze lanak. Honetarako, gaur egun dauden behin behineko aurrefabrikatutako moduluak kendu behar dira. Aurretik, ordea, barruan dagoen materiala atera eta dagoen tokira eraman behar da, eta hau auzolanean egingo da.

Larunbat honetarako ipini dute hitzordua.

“Zubietarrak deitu nahi ditugu larunbata honetan, irailaren 6a, goizeko 10:00etan lanerako gogoarekin Eskola Txikira hurbiltzeko. Hamaiketako gure esku izango da”, Zubietako Herri Batzarretik ohartarazi dutenez.



Larunbat honetan, goizeko 10:00etan ipini dute hitzordua.

## Zubietako gazteak, Euskal Herriko txapelkun orde

Euskal Herriko errebot txapelketako finala jokatu zuten uztailaren 17an zubietarrek Hendaian. 13-9 nagusitu ziren aurkariak. Zubietako pilota elkarteko boskotea ordea ez zen atzean geratu. Euskal Herriko txapelkunorde ditugu, Antton Arrillaga, Ander Iruretagoiena, Txomin Bordagarai, Julen Iñarra eta Unai Azpiroz. Zorionak!!!



Hendaian jokatu zen finala. Ezkerretara dira zubietarrak.

## Kiroldegiko eskaintza

Ikasturte berriko kirol eskaintzaren berri eman du Oiardo kiroldegia. “Aurtengo eskaintza zabalagoa da, bai ikastaro aldetik, bai orduetegi aldetik”, aditzera eman dutenez. Informazio gehiago Oiardon.

### Lehorrekoari dagokionez:

Zumba, aerobik-step, pilates, gimnasia, spinning, 3. adineko gimnasia eta berriak combi-gym, lasterketa-tonifikazioa eta gap.

### Igerilekuari dagokionez:

Haurtxoak, uretan moldatzea, ur ludoteka, igeriketa eskola, hastapena eta hobekuntza (helduak) eta berriak igeriketa gidatua eta haurdun igeriketa.

## Aginagako txapelketa

Irailak 4 osteguna, 19:00

Arruti-Esnaola/Lertxundi-Katalina Lizaso-Iruretagoiena/Urkizu-SanSebastian

Irailak 5 ostirala, 19:00

Urmeneta-Aranburu / Loidi-Ugalde

## Usurbil KE taldearen batzarra

**B**atzarra irailaren 6an, goizeko 11:00etan hasita, Sutegin. Aurreko kirol denboraldiko balantzea, datorrenaren inguruko aurreikuspenak, Zuzendaritza Batzordearen egitura aurkezpena... Hauek eta beste kontu batzuk aztertu nahi ditu Usurbil Kirol Elkartek deitu duen batzarrean:

### GAI ZERRENDA

- 1-Lehendakariaren agurra.
- 2-2013/2014 denboraldiaren kirol balantzearen aurkezpena.
- 3-2014/2015 denboraldiaren kirol aurreikuspenen aurkezpena.
- 4-Zuzendaritza Batzordearen egituraren aurkezpena.
- 5-Zuzendaritza Batzordearen proposamenak:
  - Jokalari kuoten igoera onartzea, egoki bada.
  - Bazkide kuoten igoera onartzea, egoki bada.
  - 12.000 euroko kreditu linea hitzartzeko Zuzendaritza Batzordea ahalmentzea, egoki bada.



Larunbat honetan, goizeko 10:00etan batzartzeko deia egin dute.

6-Galdera-eskaerak.

### BAZKIDETZA KANPAINA

Denboraldi berri honetan, senior mutilen taldeak jokatu dituen Ligako partidak ikusteko sarrera ordaindu beharko da aurrerantzean; 5 euro partida bakoitzeko. Usurbil Kirol Elkarteko bazkideek doan izango dute, baita taldeak kanpoan jokatu duen neurketetara joateko aukera ere. Urteroko kuota bat ere finkatu du Usurbil Kirol Elkartek, 30 eurokoa.

Eskubaloi taldeen bilgune-ko bazkide eta egiteak eskainiko dituen abantailen berri emateko kanpaina abiatu du eskubaloi taldeen bilguneak. Aurreko ostiralean, senior mutilen Kiroldegian jokatu zuten neurketan izan ziren. Aurrerago gehiagotan ere bertan izango dira. Ohar bat, jada bazkide zarenentzat: "orain arte bazkide denak, zein bazkide berriek, bazkide berretsi behar dute. Kiroldegian egongo garen egun horietan sakonago azalduko dugu dena".

## Irailaren 21eko asteburuan hasiko da Lehen Nazional mailako liga

**L**ehen nazional mailara igo den senior mutilen eskubaloi taldeak aurreko ostiralean jokatu zuen denboraldiko lehen neurketa, Euskal Kopari dagokiona, Ford Mugarri Arrasate taldekoen aurka. Arrasatekoak irailaren 21eko asteburuan hasiko duten ligako aurkari ere izango dituzte usurbildarrek. Gogoan izan, estreinakoz 1. nazional mailan jokatu duela senior mutilen eskubaloi taldeak.

Iragan uztailaren 22an Espainiako Eskubaloi Federazioak eginiko zozketa bidez, 2014-15

denboraldian 1. mailan jokatuko duten talde guztien lehen faseko neurketen egutegia finkatu zuten. Sei multzo handitan banatu zituzten lehiakideak. C multzoan da Usurbil Kirol Elkarteko senior mutilen taldea, Ucin Aluminio Usurbil. Kantabriako eta Euskal Herriko beste talde guztiokin:

- Kantabriako BM. Santoña.
- Gipuzkoako Ereintza Agua-plast, C.D. Egia Ur-Ze, Pulpo K.E., Alcorta Forging Group Elgoibar, Somos Eibar Eskubaloia, Ford Mugarri Arrasate, Tolosa C.F. Eskubaloia, La Ba-



Kantabria, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Gipuzkoako taldeak izango dituzte arerio.

caladera Hondarribia.

-Bizkaiko Trapagaran, Amazsa Urdaneta eta Quiron Askartza.

-Nafarroako Beti-Onak, Anaitasuna eta BM. Uharte.

### Sarai Lizaso eta Iñaki Errasti, Kontxako Banderan

Orio Arraun Elkartearekin lotura estua izan dute bietan. Bat Orio Arraun Elkartera itzuli da Kaikutik, Iñaki Errasti. Bestea, Orio utzi eta San Juanera talde aldatu berri da, Sarai Lizaso. Biak ala biak, ostegun honetan jokatu den sailkapen fasea igarota, Donostiako uretan ikusi ahal izango ditugu datozen bi asteburuotan.

Kontxako Bandera preziatua irabazteko lehia bizian ditugu bi herritarrek. Eta biak ere, bandera etxera eramateko aukera handiak dituzte. San Miguel Ligako bigarren postuan da Orio.



Sarai Lizaso San Juan taldearekin ari da aurten.

Emakumezkoen ligako estropada gehienak irabazi dituzten beste taldeak, Sarai Lizasoren taldeak. Ikusteke zer gertatuko den. Erantzuna datozen bi igandeotan, irailaren 7an eta 14an, Kontxako uretan.

### Tren zerbitzu berezia

Ohi bezala; tren zerbitzua indartuko du Euskotrenek. [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es) / 902543210.



Orioko txalupan lehiatuko da Iñaki Errasti aginagarra.





Klase partikularrak ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna.(618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke.Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsoneri erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldeaz. Irakaskuntza gradua bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goiz zein arratsaldeaz. Irakaskuntzan diplomadua. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikula-

rrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingeneritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperiantziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2.mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila gutxi, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritza lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Xarma tabernan pertsona bat behar da asteburuetan lan egiteko. 943 36 87 71

BESTELAKOAK

Poltsa bat utzi dut Erekatxiki pasealekuan. Norbaitek aurkitzen badu, Noaualko bulegora eraman.

Pultsera bat galdu nuen ikastola eta kirolegei artean, zilar kolorekoa eta bi hartzatxorekin. Aurki-

tu duenari bueltatzea eskertuko nioke 607 168 352 zenbakira deituz.

Mutil gazte bat prest dago, rotatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40 (Aitor).

Oxelo markako patinete bat galdu dut. Beltza eta arrosa. Aska-tasuna plazan. Aurkitzen duenak Patrira eraman, edo deitu 943 507 230.

Zaldi-terapia egiteko, egokitutako lokal bat, landa eremu bat edo lur-sail bat alokatu nahiko genuke proiektu bat aurrera ateratzeko. Igor Aizpurua. Tel. 606 525 707.

Niki txuri manga luze bat galdu dugu Erreka Txiki inguruan. Katu baten marrazkia eta perlatxoak ditu. Aurkitu baduzu, deitu 943 37 04 03 telefono zenbakira. . .

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. Tel. 696 264 197.

Josteko makinak salgai. Prezio onean. Tel. 943 36 32 01.

Belar fardoak salgai. 943 36 20 72.

6 hilabeteko Bulldog frantsesa galdu da, txuria orban beltzeekin, Txokoalde inguruan. Norbaitek ikusiko balu deitu 637 93 20 58 (Silvia)

Valentziako mandarina ekologikoak salgai. euro 1 kiloa. Bitartekari irik gabe. Tel. 637 929 093.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzailak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunear. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Table with 2 columns: Name and Phone Number. Includes entries like Udala, Atez ateko bulegoa, Udaltzaingoa, etc.

Goardiako farmaziak Irailak 4 - Irailak 14

Table listing pharmacy locations: Osteguna 4 ACHA-ORBEA, Ostirala 5 URBISTONDO, Larunbata 6 URBISTONDO, Igandea 7 URBISTONDO, Astelehena 8 GANDARIAS-URIBE, Asteartea 9 ORUE, Asteazkena 10 DE MIGUEL

Table listing pharmacy locations: Osteguna 11 RODRIGUEZ, Osteguna 12 GIL MARIN, Ostirala 13 RODRIGUEZ, Igandea 14 RODRIGUEZ

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30etara

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ AIZPURUA ODRIOZOLA, KARMELE. Latxumbe berri, 11. Hernani. 943552087 22:00 - 09:00

# Agenda iraila

## 5 ostirala

- **Santixabeletako bideo emanaldia.** 22:00etan frontoian. Antolatzailea: Santixabeletako Jai Batzordea.

## 6 larunbata

- **Auzolanerako deia Zubietako Eskola Txikian.** 10:00etan.
- **Usurbil Kirol Elkartearen batzarra.** 11:00etan Sutegin.

## 8 astelehena

- **Odol ematea.** 18:00-20:30, anbulatorioan. Antolatzailea: Usurbilgo Odol Emaitelen Elkarte. [www.gotatanta.com](http://www.gotatanta.com)

## Hasi Baxurde Krosserako izena ematen

Irailaren 21ean ospatuko den lasterketa herrikoirako izen ematea zabaldu dute antolatzaileek. Sartu kirolprobak.com atarian eta apuntatu Baxurde Txiki taldekoek antolatutako proba herrikoiren zazpigarren edizioan. Txip horiarekin 10 eurotan inskribatu daiteke, eta txip zuriarekin 12 euroren truke, irailaren 20ko gaueko 22:00ak arte. Oiaro Kiroldegian ere apuntatu ahalko da, irailaren 19ra arte.

Parte hartzaile kopurua mugatua izango da. 350 lasterkarientzako lekua dago Baxurde Kroseko zazpigarren edizioan. Iaz bezala, bi ibilbide dituzue aukeran; bat motza, 5,2 kilometrotakoa. Bestea



**Kaxkoa, Santuenea, Zubieta edota Kalezar zeharkatuko ditu irailaren 21eko lasterketak.**

honen bikoitza, 10,75 kilometrotakoa. Lasterkari guztiak, Mikel Laboa plazatik abiatuko dira, irailaren 21ean, goizeko 11:00etan.

## Santixabeletako bideo emanaldia

Uztaileko lehen astean bizitako jaietako hainbat une berriz bizitzeko aukera oporren amaiera honetan. Peru Galbete usurbildarrak iragan Santixabeletan grabaturiko irudi bildumaz gozatzeko aukera izango da, ostiral gau honetan, 22:00etatik aurrera frontoian. Jai Batzordearen eta Udalaren eskutik.

## KzGunea, irailean goizez zabalik

Ikastaro hauek iragarri dituzte: Irailaren 3tik 12ra, 11:00-13:00 artean: Sare Sozial ikastaroa. Irailaren 29an, 9:00-11:00 artean: Open Office Writer: Oinarritzkoa. Irailaren 30ean, 9:00-11:00 artean: Open Office Writer: Aurreratua. 943 023 684 / [tutor.usurbil@kzgunea.net](mailto:tutor.usurbil@kzgunea.net)

## Datozenak

### Bidarrai-Iparla-Izpegi ibilbidea

Irteera hori antolatu dute Andatza Mendiko Taldekoek irailaren 14rako. Goizeko 7:00etan abiatuko dira Oiaro Kiroldegitik. Izen ematea irailaren 10a baino lehen egin behar da, Kutxabank-eko 2095 5069 07 1068489805 kontu zenbakian (adierazi, izen abizenak eta NAN zenbakia).

-Pirinioetako gehigarria duten Andatzako bazkideek: 12 euro.

-Pirinioetako gehigarria ez duten Andatzako bazkideek: 22 euro.

-Pirinioetako gehigarria duten federatuek: 15 euro.

-Pirinioetako gehigarria ez duten gainerakoek: 25 euro.

Oharrak:

-**Plaza mugatuak.** Lehentasuna Andatza MKT-ko kideek dute.

-Irteeran parte hartzeko **mendi istripuen aseguruia izatea beharrezkoa izango da.** Mendiko Federatuek Pirinioetako gehigarria dutela egiaztatu beharko dute. Pirinioetako gehigarria ez duten Federatuentzako edo Federatuak ez direnentzako, Andatza MKT-k bideratuko du aseguruia. Ez da onartuko beste aseguruirik.

-**Otordua, ibilbidea amaitu ondoren.** Janariak norberak eraman beharko du. Edaria antolatzaileen esku.

**Informazio gehiago:** [andatza.com](http://andatza.com)

**Antolatzailea:** Andatza MKT.

**JE JON ELORZA**  
**IGELTSERITZA**  
**OROKORRA**  
**Obrak eta erreformak**  
**661 804 688**  
 San Esteban 5, baxua USURBIL [jon.elorza@hotmail.com](mailto:jon.elorza@hotmail.com)

**txirriStra**  
**TABERNA**  
 -Plater konbinatuak  
 -Ogitartekoak  
 -Pintxoak  
 Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66


- Ingeleseko klaseak
- 8 ikasle gehienez gelako
- 8 urteetatik aurrera
- Enpresentzat programak
- Azterketen prestakuntza
- Elkarrizketa klaseak (helduak)
- Maila guztiak
- Bertako irakasleak
- Matrikulatzea dohainik



# Oraín eguerdian ere bai!

Eman izena lehen bait lehen, klaseak Irailak 8an hasten dira !

686 499 775 (Toby) • tobyngana@hotmail.com  
Alperroburu 2, Usurbil




**GOLDWELL**  
**ELUMEN**

*ileapaindegia*

**mistoa**

**Koloraziotan teknika berriak eta iraunkorrrak**

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951



**ALAMANDEGI JATETXEA**

- Astean zehar eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia, familia guztiarentzat aproposa!

Tel. 943 36 28 49 egin zure erreserba!  
Urbitarate kalca 1, 20160 Zubieta



**USURBIL**  
oraina da geroa



# irailak 9

19:00etan Sutegin

## AURKEZPEN BILERA



**Etorkizuneko Usurbil marraztera goaz**  
**ZATOZ ETA PARTE HARTU!**  
*oraina da geroa*